

2016KO ABENDUAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2016ko abenduaren 29ko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu) ez da bertaratu

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu dau.

Dana dala, zerrendatutako gaiak lantzen hasi aurretik, Amets Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau:

Danok dakigun modura Grezian euskal herritar bi atxilotu dabez, errefugiau batzuk bertorantz ekarten saiatukeran. Ekintza humanitario hori dala-eta hainbat erakundek atxiloketea arbuia eta pertsona horreei atxikimendua adierazo deutse; Arartekoa be atxiloketaren aurka azaldu da.

Bakioko EHBildu taldearen asmoa da udalbatzak, gaur bertan, gaia preminazkoa dala onartzea eta, segiduan, erabagitea euskal herritar bi horreei alkartasuna adierazo eta euren askapena eskatzea.

Alain Gomez zinegotziak, Bakiobai taldearen izenean dino: *gu ez gagoz erabagi hori hartzearen alde edo aurka, baina gure ohiko udal politikea da, edozein gairi buruz*

udalbatzak erabagia hartu baino lehen, gaiaren nondik-norakoa udal batzordean eztabaidatzea, eta horretaz ez dogu berbari egin.

Hori ikusirik, alkate andreak dino gaia eskaerak eta galderak atalean aurkeztuko dauala.

1.- 2016KO ZEMENDIAREN 24AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2016ko zemendiaren 24an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

2.- 2016KO ABENDUAREN 15EAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2016ko abenduaren 15ean egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

365/2016.- Monica García Hernández andreak, Angel Marcaida Echevarria jaunaren izenean, egindako erreklamazinoa ezestea.

366/2016.- “Repsol Butano, S.L. enpresaren behin betiko bermea itzultzea.

367/2016.- *Gure Esku Dago* ekimenaren ekitaldi bat antolatzeko baimena.

368/2016.- Kultur Etxeko areto bat erabilteko baimena.

369/2016.- Zordunei dirua itzultzeko ebazpena.

370/2016.- *Gailur Taldea Eraikuntzak SL* enpreseari ura drainatzeko baimena emotea.

371/2016.- “Ibarrabarria” etxea barriztatzeko obren lizentzia emotea.

372/2016.- Bizkaiko lapikokoen txapelketa-ekitaldia egiteko baimena emotea.

373/2016.- Pergola bat kentzeko izapidetutako urigintzako antolamendua leheneratzeko espedientea amaitutzat emotea.

374/2016.- Azaroko nominak onartzea.

375/2016.- Udal korporazinoa defendatzeko eta ordezkatzeko Iker Urbina Fernández eta Fernando Asensio Millán abokatuak izendatzea.

376/2016.- Ibilgailuetarako 2016eko udal pasabideen tasaren errolda onestea.

377/2016.- Udaleko arkitekto aholkulariaren 2016ko urriaren 27ko txostena onartzea.

378/2016.- “LAECOR ingenieria acústica” enpresari zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.

379/2016.- Aurreikusigabekoetarako 2015eko diru-laguntzaren gastua eta haren justifikazioa egiteko 3 hilabeteko luzapena eskatzea.

380/2016.- “Urkizta ikastetxea”ren zerbitzurako 2015-2016ko ikasturtean eskola garraioa egiteko baimena emotea.

381/2016.- Gaueka Taldeari guztira diru-laguntza emotea, San Joseetan antolatutako idi probak dirala eta.

382/2016.- Uribe Herri Kirol Alkarteari laguntza emotea, eskualdeko idi-probak dirala eta.

383/2016.- Motor show-a antolatzeko baimena emotea.

384/2016.- Egurra atarateko baimena emotea

385/2016.- Fakturen obligazioak onartzea.

386/2016.- Kreditu transferentziak egiteko ebazpena.

387/2016.- Eva Maria Garcia Seisas andreak egindako erreklamazioa baiestea.

388/2016.- Fakturen obligazioen ordainketak onartzea.

389/2016.- Fakturen obligazioen ordainketak onartzea.

390/2016.- Fakturen obligazioen ordainketak onartzea.

391/2016.- Iker Urbina Fernández letradu jaunari zerbitzu kontratu txikia adjudikatzea.

392/2016.- Kredituak aldarazteko 13. espedientea onestea.

393/2016.- Hornitzaileen maileguaren aldez aurretiko amortizazioa ebatzea.

394/2016.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

395/2016.- Surf Txapelketa bat antolatzeko baimena emotea.

396/2016.- Herri jabariko hiru eremu erabilteko lizentziak esleitzeko espedientea onestea.

Ostean, Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

375/2016.- Udal korporazioa defendatzeko eta ordezkatzeko Iker Urbina Fernández eta Fernando Asensio Millán abokatuak izendatzea.

Kaleko udal lan taldeko arduradunak 2016ko zemendiaren 18an lan-arloko epaitegian auzi-demanda aurkeztu eutsen udalari. Izan be, udalari diru kopuru zehatz bat eskatzen deutso beharrean egindako ordu batzuk ez dauzalako konpentsau egun libreagaz.

Horren harira, esan behar da aurretiaz ordezkari sindikalak informazioa bialdu euskula esanez arduradun horrek ohiko lan ordutegitik kanpo diruz ordainduta daukan lan orduakaitik egun libreak hartzen dauzala.

Ikertu genduan gaia eta konturatu ginan ordezkari sindikalak arrazoia eukala.

Guk hor ikusten dogu lantaldeko arduradunak ez jagokon onurea jasoten dauala, ordaindutako orduakaitik egun libreak hartzen dauzalako, eta horrerri aurre egiteko bitartekoak ipini doguz. Beraz judizinoa maiatzean izango da, horretarako goian aitaturako letraduak izendatu doguz, eta ez dakigu aurretiaz egingo dan adiskidetze-egintzan akordiorik lortuko dan

Gure asmoa bai da kaleko udal lantaldearen beharra berrantolatzea eta horrelako arazoei konponbidea emotea epaitegietatik kanpo.

378/2016.- “LAECOR ingenieria acústica” enpresari zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.

Herriko urigintzako plangintza orokorraren berrikuspenari begira, agiri batzuk landu diran ezker (aurrerapen agiriaren testu bategina, ingurumen egonkortasunari buruzko txostena eta herritarren partaidetzaren ganeko agiria), Bakioko analisi akustikoari buruzko azterketearen 1go fasea idatzi dau enpresa horrek, plangintza horren berrikuspenaren ingurumen azterketeari eransteko.

386/2016.- Horren bidez, 2016ko udal aurrekontuaren 12. aldarazpen espedientea onartzen da, aldarazpenak kreditu transferentzien izaera izanik:

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

Erabilera				
Aurrekontu kontu egilea	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
330.481.01.20	TRANSE. ARKUNT. (RLEKARTEAK)	28.800,00 €	33.300,00€	4.500,00 €
GUZTIRA		28.800,00 €	33.300,00€	4.500,00 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrekontu kontu egilea	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
330.121.00.02	PERTSONALAREN GASTUAK, ORD. OSA	57.297,12	52.797,12€	4.500,00 €
GUZTIRA		57.297,12 €	52.797,12€	4.500,00 €

392/2016.- Horren bidez, 2016ko udal aurrekontuaren 13. aldarazpen espedientea onartzen da, aldarazpenak kreditu gaikuntza izaera izanik:.

Sarrerren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
420.15	Egoera Larria dala eta BFA aren dirulaguntza	0,00 €	306.854,21 €	306.854,21 €
GUZTIRA		0,00 €	306.854,21 €	306.854,21 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek ondoko aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
920.933.00.05	Hornitzaileen maileguaren amortizazioa			
GUZTIRA				

4.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO, ONDARE KALTEETAKO, IBILGAILUETAKO, ISTRIPUETAKO ETA BIZITZAKO ASEGURUEN POLIZAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA PROZEDURA IREKI BIDEZ ONARTU, HALA BAJAGOKO.

Zinegotzi guztiek klausula administratiboen eta baldintza teknikoen orrien mamina ezagutzen daben ezkerok, bai eta orriok arautzen daben helburuari buruz informazio batzordean berba egin dan ezkerok be, udal idazkariak horren ganeko azalpen honeek emon dauz:

Erantzukizun zibileko, ondare kalteetako, ibilgailuetako eta zinegotzien eta udaleko pertsonalaren istripuetako bizitzako aseguru polizak, urteetatik, aseguru-etxe desbardinaren esku dagoz, eta, asmoa bikoitza da, batetik legedia bete, hau da, udal kontratuak esleitzeko prozedura izapidetu beharra, interesatuek esleipenera aurkezteko aukerea izan daien, batez be poliza horreek dirala-eta udalak urtero ordaintzen dauan zenbatekoa kontuan hartzen badogu; eta, bestetik, adjudikatzailerak bakarrak aseguru-poliza guztiak kudeatzea, kontrolatzeko orduan hori udalarentzat abantaila dala uste dogulako.

Horren ostean, zinegotziak botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Bakioko Udaleko erantzukizun zibileko, ondare kalteetako, ibilgailuetako, istripuetako eta bizitzako aseguru polizak kudeatzeko esleipenari buruzko prozedurari hasikera emotea, bai eta kontratazino espedientea onartzea be, kontratua eraenduko daben administrazino klausulen eta baldintza teknikoen orriak barruan dirala. Gauzak horrela, adjudikazinoa prozedura zabal bitartez izapidetuko da eta kontratuak urte biko iraupena izango dau (kontratua, urtez urte, urte bira arte luzatu ahal izango da). Lizitazino prezioa 48.120 euro/urteko izango da, BEZa barik, (Administrazinoari ordaindu beharrekoa), prezio hori berantz hobetzeko aukerea egonik. Hori horrela izanik, 2017 urteko udal aurrekontuan, bai eta 2018koan be, ordainketa kreditua zainpetzeko konpromisoa hartzea, beti be jagokozan gastuei aurre egiteko.

2.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

5.- 2016KO 3. HIRUHILEKOKO AURREKONTU BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON ETA DOIKUNTZA PLANAREN BETETZE MAILA EBALUATU.

Aitatutako gaia dala-eta zinegotziak horri buruzko agiria daukien ezkerok, horren barri emon da, beste barik.

Edozelan be, Amets Jauregizar alkate andreak, adierazo dau doikuntza planari jagokonez ratioak beteten dirala, eta horren barri 2016ko udal aurrekontuaren likidazioan eta kontu orokorrean emongo dala.

6.- BAKIOKO KULTUR ETA KIROL ALKARTEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTU, HALA BAJAGOKO.

Atoan, Amets Jauregizar alkate andreak dino:

Udalbatzak, 2016ko zemendiaren 10ean egindako osoko bilkuran, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzei buruzko ordenantzea behin betiko onartu eban.

Udalbatzak, 2016ko zemendiaren 24an, Bakioko kultur eta kirol alkarteei diru-laguntzak esleitzeko deialdia onartu eban, bai eta aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratzeko instrukzio-organoa izendatu be.

Eskabideak eta agiriak aurkezteko deialdia zemendiaren 25etik abenduaren 9ra arte zabalik egon zan eta guztira hamairu alkarteen eskabideak jaso ziran.

2016ko udal aurrekontuko gastuen orriko laugarren kapituluuan alkarteei diru-laguntzak emoteko 27.000,00 euro zainpetuta dagoz.

Alkarteek aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratu dira eta horreei buruzko azalpen-agiria idatzi da.

Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzei buruzko prozedurak aldagarriak dirala kontuan hartuz, gure asmoa da datorren urtarrilean herriko alkarteekaz batera aztertzea prozedurea zelako modutara hobetu daiteken, hobetu ahal bada behintzat.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Bakioko kultur, kirol eta gizarte elkarteei zuzendutako diru-laguntzak onartzea eta atal ekonomikoari agindua emotea, eskatzaile bakotxari jagokon diru-laguntza ordaintzeko, beti be honako taulan agertzen dan kopurua emanez.

ALKARTEA	2016KO DIRU-LAGUNTZA
Bakioko Abesbatza	2.247 €
Alaitasuna pelota taldea	2.728,5 €
Atxurre Futbol Sala Taldea	2.601 €
Bizilore	1.316,1 €
Bakio Kirol Taldea	2.279,1 €
Urkitza Eskolako Guraso Elkartea	2.696,4 €
Gure Etxea	1.671,2 €
Haria Elkartea	1.155,6 €

Itxas-Alde dantza taldea	2.472,7 €
Marta Txori Andra Elkartea	2.182,8 €
Motor Sport Elkartea	2.118,6 €
Musikale	2.247 €
Bakio Surf Taldea	1.284 €

2.- 2016ko udal aurrekontuaren gastuen orriko 330 481.01.20 partidaren pentzura gastua egitea erabagi, beti be diru-laguntzak ordaindu ahal izateko.

7.- HALA BAJAGOKO, KIROL JARDUEREN PLANIFIKAZINOAGAZ ETA GARAPENAGAZ, UDALAREN KIROL INSTALAZINOETARA SARTZEKO KONTROLAGAZ ETA BERTAN EGINGO DIRAN PRESTAKUNTZA IKASTAROEN KUDEAKETA OSOAGAZ ZERIKUSIA DAUKAN ZERBITZUAREN KONTRATAZINOA ETA PRESTAZINOA ADJUDIKATU.

Atoan, udal idazkariak, hauxe adierazo dau:

“Bakioko Udalbatzak 2016ko urriaren 27n egindako ohiko bileran erabagi hau hartu eban: *Bakioko Udaleko kirol instalazinoetan kirol jardueren planifikazinoagaz eta garapenagaz eta sarbideen kontrolagaz zerikusia daukien zerbitzua emoteko eta bertan aurrera eroango diran prestakuntza ikastaroak modu integralean kudeatzeko esleipenari buruzko prozedureari hasikera emotea, bai eta kontratazino espedientea onartzea be, kontratua eraenduko daben administrazino klausulen eta baldintza teknikoan orriak barruan dirala, adjudikazino prozedura zabal bitartez izapidetzea erabagiz, bai eta kontratuak urtebeteko iraupena izango daula be (kontratua urtebete luzatzea ahal izango dan arren).*

Horren ostean, lizitazinoaren deialdiaren buruzko iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko taulan eta kontratugilearen profilean argitaratu ziran legeriak ezarritako epean, interesdunek bidezko proposamenak aurkeztu eiezan.

Deialdiaren barruan (azkeneko eguna 2016/11/14a izanik), lizitatzaille bakarra aurkeztu zan, “BI SPORT” eta “KONECTIA SERVICIOS INTEGRALES S. L.” enpresek osotutakoa, hain zuzen be

Kontratazino Mahaiak, zemendian egindako bileretan lizitatzailleak aurkeztutako agiriak aztertu ebazan eta, azkenik, Mahai horrek, udalbatzari horren aldeko adjudikazino proposamena egin eutson. Hori dala eta, Udalbatzak, 2016ko abenduaren 15ean, proposamen hori onartu eta lizitatzailleari agiri zehatz batzuk aurkezteko agindeia egin eutson, horretarako, 5 egun balioduneko epea emonaz.

Lizitatzailleak abenduaren 26an, epe barruan, agiriok aurkeztu dauz, eta, aztertu ostean, agiriok zuzenak dirala esateko moduan gagozan ezker, udalbatzari jagoko adjudikazinoaren ganean erabagia hartzea”.

Aitor Apraiz EAJ-PNV taldeko zinegotzi bozeroaleak, adjudikazioaren ostean, prozedura barruan egin beharreko tramiteak zeintzuk diran galdetu deutso idazkariari.

Azken honek haxe adierazo dau: *lehenbailehen adjudikatzaileari gaur hartuko dan erabagia jakinarazo behar jako. Udalak jakinarazpena jaso eta zortzi egun buruan adjudikatzaileak eta udalak kiroldegiaren zerbitzuaren kudeaketari buruzko kontratu administratiboa sinatu behar dabe eta, azkenik, adjudikatzailea hogeita hamar egun naturalaren barruan zerbitzua eskaintzen hasi behar dau, eta urtebeteko burutzapen epea zerbitzua eskaintzen hasten danetik kontatzen hasiko da.*

Kontratu hori sinatzen dan momentuan kiroldegiaren oraingo kudeatzaileak (BAKIO SPORT, U.T.E.) zerbitzua emoteari itxi beharko deutso.

Amaitzeko, Amets Jauregizar alkate andreak adierazo dau BAKIO SPORT U.T.E. kiroldegiaren oraingo kudeatzaileagaz hartu-emonetan ipini beharra dagoala kudeaketa horren amaiera bideratzeko eta, bide batez, udaleko aparejadoreak udaleko tresneriaren inbentarioa egiteko.

Horrenbestez, 14ko 3/2011 legegintzako errege-dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 151-4. artikulua ezarritakoaren arabera, EH Bildu taldeko hiru zinegotzien (Amets Jauregizar, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, eta ezezko botorik egon ez dan ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Kirol jardueren planifikazioagaz eta garapenagaz, udalaren kirol instalazioetara sartzeko kontrolagaz eta bertan egingo diran prestakuntza ikastaroen kudeaketa osoagaz zerikusia daukan zerbitzuaren kontratazioa eta prestazioa “BI SPORT 2.011, S.L.” eta “KONECTIA SERVICIOS INTEGRALES S. L.” enpresek osotutako “U.T.E. BAKIO KIROLA” aldi baterako enpresen alkarteari esleitzea urte baterako, enpresa horrek urteko 16.275 euroko (BEZa barik) kanona ordaindu behar dauala kontuan hartuz; hori guztiori klausula administratibo berezien agiriaren, baldintza teknikoaren agiriaren eta lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

2.- Erabagi hau “U.T.E. BAKIO KIROLA” kontratuaren adjudikatzaileari jakinarazotea eta, bide batez, deitzea legezko epearen barruan udaletxera bertaratzeko kontratua sinatu daiten.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko bost zinegotziak (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Antonio Abio, Gorka Azaola eta José Luis Urrutia) abstenidu egin dira.

8.- HALA BAJAGOKO, ORDENANTZA HONEEK INDARREAN SARTZEKO EPEA ALDATZEA: UDAL AGIRIAK EMOTEAGAITIKO ZERGA

ORDENANTZEA, IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEKO ZERBITZUAGAITIKO ZERGA ORDENANTZEA ETA ERAIKUNTZA, INSTALAZINO ETA OBREN GAINEN ZERGA ORDENANTZEA.

Gai honeri hasiera emonaz, Udal idazkariak adierazpen honeek egin dauz:

“Bakioko Udaltzaren, 2016ko zehazkiaren 10ean egindako osoko bilkuran, zerga ordenantza honeen aldarazpenak 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzea erabagi eban:

Agiriak emoteagaitiko ordenantzaren aldarazpena hasikera batean onestea.

Ibilgailuak bide publikotik hartu eta kentzeagaitiko ordenantzaren aldarazpena hasikera batean onestea.

Eraikuntza, instalazio eta obren ordenantzaren aldarazpena hasikera batean onestea.

2016/11/10eko udaltzaren erabagi horreetan jasotakoa beteteko, beharrezkoa da zerga-ordenantza horreen aldarazpenak datorren urtarrilaren batan aurretik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzea.

Hori horrela izanik, harrezkero konturatu ginan argitalpen hori egitea oso gaxa izango zala. Kontuan hartu behar da hainbat ordenantzaren iragarkiak bialdu behar genduzala eta Foru Aldundiaren Aldizkari Ofizialaren sailak be oso lan nekeza izango ebal, udaleetatik antzeko iragarki pilo bat jasoko dauala pentsatzekoa dalako, ekitaldi amaierako sasoi berezi hau dala-eta.

Izan be, legez ez da beharrezkoa hiru zerga ordenantzok indarrean saretzea datorren urtarrilaren batean, hori horrela izaten behartzen dauan araudirik ez dagoalako. Indarrean 2017. urte barruan sartu daitezke, hau da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 107.1 artikulua eta Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15.1.c eta 16. artikulua).

Izan be, 2016/11/10eko udaltzaren onartutako ordenantzen aldarazpenen artean, legez 2017/01/10ean indarrean sartu behar diran aldarazpenak ordenantza honeei jagokezenak dira: *jarduera ekonomikoen ganeko zergari, ondasun higiezinaren zergari eta trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergari*”.

Hori dala eta, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

LEHENIK: Ondorengo zerga ordenantzen aldarazpenak (Bakioko Udaltzaren 2016/11/10ean hasikera batean onartutakoak) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen diran bihamunean indarrean sartzea:

Agiriak emoteagaitiko ordenantzaren aldarazpena.

Ibilgailuak bide publikotik hartu eta kentzeagaitiko ordenantzaren aldarazpena.

Eraikuntza, instalazio eta obren ordenantzaren aldarazpena.

BIGARRENIK: Bakioko Udalbatzak, 2010eko zemendiaren 10en egindako bilerako aztergaien 3, 7 eta 10. atalak erabagi honetara egokitzea.

9.- INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO PROTOKOLOA ONARTU, HALA BAJAGOKO.

Bakion jorratutako idatzizko protokoloaren kopia zinegotzi guztiak daukiela kontuan hartuz, Amets Jauregizar alkate alkate andreak hauxe adierazo dau:

2016/11/25ean ekitaldi publikoan aurkeztu zan protokoloa eta zemendiaren 28an udaleko web orrian ipini zan eta alkarteek eta herritarrek ekarpenak egiteko deialdia egin, horretarako epea zehaztuz. Deialdiaren aurretiaz ekarpen batzuk jaso genduzan, baina epe horren barruan inork ekarpenik egin ez dauala ikusirik protokoloaren edukia behin betikotzat jo da.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa onartzea.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Atoan, Amets Jauregizar alkate andreak, EH Bildu taldeareni zenean, adierazo dau:

Batzar honeri hasikerea emon aurretik esan dodan modura Grezian euskal herritar bi atxilotu dabez, errefuxiatu batzuk bertorantz ekartzan saiatukeran. Argi daukaguna da ekintza hori ez dala pertsonen trafiko arloko ikuspuntutik ikusi behar, ekintza humanitario modura baino, hau da, errefuxiatu zehatz batzuei laguntzea (sufritzen dagozan egoera lazgarritik atera eta bertorantz ekarri bizimodu duina izateko asmoagaz), eta, era berean, ekintza horren mezua be bada jendea kontzientziaztea errefuxiatuen egoereaz eta egoera hori salatzea.

Hori dala eta, EHBildu euskal herritar bi horreei, beren senideei eta lagunei alkartasuna adierazoten deutse eta, bide batez, lehenbailehen hareek askatzea eskatzen dau.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoenez, alkate andreak batzar hau 19:35ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria